

LANDUR DIRDIRAZ

Landur dirdiraz
ez dakit nor zirkin dan;
illargipean
ez dakit nor daukadan...

Baiña, egia,
atsegin yat zelaiea,
atsegin ziñez
lagun-ikuste txit mea.

Betor landurra,
pendiza oso izorra tuz;
betor illargi,
nire arima nasaituz.

Samin erpetan
larri naukazu aspaldi,
gauak biotza
daustala mintzen biziki.

Nik eskuratu
nebana onen garesti,
batez ni aiztu
ta iges egin daust urruti.

Arrezkeroan,
landur artean nasia,
a nai dot aantzi,
aren iduri bizia.

Baiña ezin dot!
Marmara yatort j̄baitik,
eun lelo eztiz
neure izatea mindurik.

Landur dirdiraz
ez dakit nor zirkin dan...
Eta ni miña
eioten nauko tristuran.

LUMA USAINTSUA

Goiz baten bidean aurkituaz,
—ezpangorri ta begi alaitan—
zenkarren zisku gaztain margozko
edegiz, luma bat emon zeustan.

Biotz latza jzan gizon baldarrak;
nik ez neutzun eskerrik azaldu:
barne-ozpiña txasta irudiko,
nenkarren bidez jo neban mutu.

Bidarloa olan, ixil, mutu.
Gero, luma eskuan arturik:
—«Zerez egiña zaitut, idazkortz?
Dozun usaiñak ba-dau gozorik!»

—«Len usainge nintzan, baiña arek
j̄ku nindunetik naz bestetu;
zurgiñak nindun erera jantzi,
baiña, a barik, nintzake zarpatsu».

Geroz, maite, zeure arnasa dot
nigan, gogo ta soin, ixuria;
geroztik, gau t'egun, dot asmatzen
zure izanaren lurrin ezta.